TOLOSAKO UDALA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, TOLOSAKO UDALERRIAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZUARENA

Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuaren proposamen teknikoak behean aipatuko ditugun hauek garatu eta proposatu beharko ditu.

TESTUINGURUA:

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuetakoak, 5. eta 6. artikuluetan zehazten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, eta helburuen artean, honako hauek jasotzen ditu:

a) pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurre hartu eta erantzutea;
b) babesgabetasun egoerek eragiten dituzten beharrizanei aurre hartu eta erantzutea;
c) bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatuz;

d) larrialdi-egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.

Lege horrek berak, 22. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Sistemaren katalogoa ezartzen du, eta udal eskumeneko, foru eskumeneko eta Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzu eta prestazioak zerrendatzen ditu. 23. artikuluak, berriz, jasotzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Kartera osatuko duela Eusko Jaurlaritzak.

185/2015 Dekretuan, urriaren 6koan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan, garatzen da eskakizun hori, eta zerbitzuen eta prestazio

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA EL SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y PSICOSOCIAL EN EL MUNICIPIO DE TOLOSA

La propuesta técnica del servicio de intervención socioeducativa y psicosocial deberá desarrollar y proponer lo descrito en los siguientes apartados.

CONTEXTUALIZACIÓN:

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en sus artículos 5 y 6 establece el Sistema Vasco de Servicios Sociales, y entre sus objetivos se hallan los siguientes:

a) promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia;
b) prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección;
c) prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y de los grupos;
d) prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

Esta Ley, en su artículo 22, establece el Catálogo de Prestaciones y Servicios del sistema Vasco de Servicios Sociales, y enumera los servicios y prestaciones que corresponden a la competencia municipal, la competencia foral y la competencia del Gobierno Vasco. El artículo 23, a su vez, recoge que el Gobierno Vasco elaborará la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Dicha solicitud se desarrolla en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

ekonomikoen antolaketa zehaztu eta arautzen da.

Bertan jasotzen da udal eskumenekoa dela 1.3 fitxan zehazten den zerbitzua, hau da, «Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua».

Zerbitzu hori, dokumentuan jasotzen denez, gizarte eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako eta/edo taldekoetan datza, zeina familiaren bizilekuan edo ingurune komunitarioan garatu daitekeen.

Servicios Sociales, que determina y regula la organización de los servicios y las prestaciones económicas.

Este Decreto indica que es competencia municipal el servicio que se detalla en la ficha 1.3: «Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial».

Este servicio, tal y como se recoge en el documento, consiste en el conjunto de prestaciones relacionales de apoyo socioeducativo y/o psicosocial de carácter individual, familiar y/o grupal, que se puede desarrollar en el domicilio de la familia o en el entorno comunitario.

Araudi horren arabera, hauek izan daitezke zerbitzu horren hartzaile:

- Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak
- Mendetasun-arriskuan dauden pertsonak
- Babesgabetasuneko arrisku-egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabeak; babesgabetasuneko arrisku-egoera larrian dauden adingabeak edo helduak zerbitzu honetatik kanpo geratuko dira, pertsona horiek artatzea Familiekin Gizarte eta Hezkuntza arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko Zerbitzuari dagokiolako (Foru Aldundiko eskumena 2.7.3.1 fitxa).

Según esta normativa, las personas destinatarias serán las siguientes:

- Personas en riesgo de exclusión.
- Personas en riesgo de dependencia.
- Personas menores de edad en situación de riesgo leve o moderado de desprotección, quedando excluidas las personas en situación de riesgo de desprotección grave, menores de edad o adultas, cuya atención corresponde a los Servicios de Intervención Socioeducativa y/o psicosocial con Familias (competencia de la Diputación Foral, ficha 2.7.3.1).

Bestalde, kontuan izan behar dira lege hauek ere:

- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa.

- 14/2022 LEGEA, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena

- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun–egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.

Por otra parte, se debe tener en cuenta la siguiente normativa:

- Ley Organica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia.

- LEY 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión

- Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO
UDALA

Aipatu behar dira, era berean, baloraziorako tresna tekniko komunak, Gizarte Zerbitzuen Legearen 20. artikuluari jarraiki garatu direnak. Zehazki kontuan izan behar dira:

- 230/2011 DEKRETUA, azaroaren 8koa, BALORA Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.

- 385/2013 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena.
- MENDEKOTASUNAREN Balorazio Baremoa (MBB) eta Hauskortasun soziala neurtzeko tresnak (Hurkoak garatutako BaTuran, esaterako)

También se deben mencionar los instrumentos técnicos comunes de valoración, desarrollados en virtud del artículo 20 de la Ley de Servicios Sociales. Concretamente se tendrán en cuenta los siguientes:

- DECRETO 230/2001, de 8 de noviembre, por el que se aprueba BALORA, el Instrumento para la valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo y desamparo en los Servicios Sociales Municipales y Territoriales de Atención y Protección a la Infancia y Adolescencia en la Comunidad Autónoma Vasca.
- DECRETO 385/2013, de 16 de julio, por el que se aprueba el Instrumento de Valoración de la Exclusión Social.
- Baremo de Valoración de Dependencia (BVD) y herramientas para medir la fragilidad social (por ejemplo en la Baltura desarrollada por Hurkoa)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Tolosako udalerrian «Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua garatzea», Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailarekin lankidetzan eta hark ikuskatuta eta gidatuta.

Zerbitzu honen bidez, harreman-prestazio indibidualak, familiakoak eta/edo taldekoak emango dira, gizarte eta hezkuntzan arloan eta arlo psikosozialean laguntzeko. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) garatuko dira.

Zerbitzu honen bidez hiru lan-esparru hauetan esku-hartuko da:

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de este contrato es desarrollar en el municipio de Tolosa el servicio de intervención socioeducativo y psicosocial, en colaboración y con la debida supervisión y dirección del Área de Servicios Sociales y Salud del Ayuntamiento de Tolosa.

Este servicio ofrecerá un conjunto de prestaciones relacionales de apoyo socioeducativo y psicosocial –de carácter individual, familiar y/o grupal– que podrán desarrollarse tanto en el domicilio familiar (educación doméstica, intervención familiar básica) como en el entorno comunitario (educación de calle, intermediación sociocultural).

Este servicio actuará en estos tres ámbitos de trabajo:

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO UDALA

a) Adingabeen babesgabetasun-egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea.

b) Bazterkeria-arriskuko egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea.
c) Mendekotasun-arriskuko egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea.

Era berean, zerbitzua arreta bi plano bereizitan eskaintzeko diseinatuta egongo da, baina erabat lerrokatuta, integratuta eta kohesionatuta egongo dira bi plano horiek.
Alde batetik, esku-hartze komunitario integraleko zerbitzua eskainiko da. Zerbitzu horren helburu nagusia izango da arretako egitura irmo bat eskaintzea zaurgarritasun-egoeran dauden eta babesgabetasun-, bazterketa- eta/edo hauskortasunaren arriskuan edo egoera arinean dauden pertsonak eusteko eta indartzeko. Erreferentzia-gune bat izango da, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonei beren ohiko ingurunean dauden babes-sareak aktibatzeko harremanak eta loturak eraikitzen laguntzeko. Horretarako, elkarrenganako onuran, komunitatearen beraren aberastasunean eta, batez ere, artatutako pertsonak komunitateko kide izatearen sentimenduan, gizarteratzean eta beren ongizate-pertzepzioan eragingo du.
Bestalde, arreta pertsonalizatuko zerbitzua eskainiko da, arrisku ertain edo larriko babesgabetasunaren, bazterketaren edo hauskortasunaren adierazleak gainditzeko, saihesteko edo murrizteko. Horretarako, esku hartzeko plan zehatzak diseinatuko dira, helburu egituratuekin eta konpromiso argiekin, eta esku hartzeko prozesu trinkoak garatuko dira, laguntza profesional jarraituarekin.

«Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua» eskaintzerakoan oinarri hauetan jasotako xedapen guztiak beteko dira, eta batez ere, indarrean dagoen araudian jasotakoak bermatuko dira.

a) La detección, atención y prevención de situaciones de desprotección de las personas menores de edad.
b) La detección, atención y prevención de situaciones de riesgo de exclusión
c) La detección, atención y prevención de situaciones de riesgo de dependencia.

A su vez, el servicio estará diseñado para ofrecer la atención en dos planos diferenciados, pero totalmente alineados, integrados y cohesionados.
Por una parte, se ofrecerá un servicio de intervención comunitaria integral, cuyo objetivo principal será ofrecer una estructura firme de atención para contener y fortalecer a las personas en situación de vulnerabilidad con riesgo o leve situación de desprotección, exclusión y/o fragilidad social. Será un espacio de referencia para la construcción de relaciones y vínculos que ayude a las personas en situación de vulnerabilidad a activar las redes protectoras existentes en su entorno habitual, incidiendo en el beneficio mutuo, en el enriquecimiento de la propia comunidad, sobre todo, en el sentido de pertenencia a la comunidad, inclusión social y el bienestar de las personas atendidas.
Por otra parte, se ofrecerá un servicio de atención personalizada, centrada en superar, evitar o reducir los indicadores de riesgo moderado o grave desprotección, exclusión o fragilidad. Para ello se diseñarán planes de intervención concretos, con objetivos estructurados y compromisos claros, y se desarrollarán procesos de intervención intensivos, con acompañamiento profesional continuado.

Para la prestación del servicio de intervención socioeducativo y psicosocial, se respetarán todas las cláusulas descritas en estos pliegos, y sobre todo, las descritas en la normativa vigente.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO UDALA

2. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK.

2.1-Ezaugarri orokorrak:

a) Zerbitzu honen bidez, esku-hartu nahi da pertsonekin edo familiekin, helburu hauek lortzeko:
- Gaitasunak eskuratzea eta garatzea (gaitasun horiek pertsonalak, familiakoak edo taldekoak izango dira), autonomiaz moldatzeko, gizarteratzeko eta familia eta komunitate inguruneko bizikidetza egokia bultzatzeko.
- Ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak baztertu, eta egokiak haienganatzea.

b) Zerbitzua programa hauen bidez emango da:

Esku-hartzeko zerbitzu hau bi azpitaldetan antolatuko da. Hain zuzen ere, zerbitzuaren eragin-esparrua oso zabala da, nola helburuetan hala xede-biztanlerian, eta modu honetan antolatzeak erraztuko du lan-taldearen jardun-profesionalaren norabide nagusia ongi finkatzea, eta horrekin bat, onuradun bakoitzaren unean-uneko behar nagusiekin lerrokatutako esku-hartzeko helburuak eta prozedurak lerrokatzea, beti ere baliabideak modu jasangarrienean kudeatuta.

Horrela, alde batetik, Prebentziorako eta Sustatze Komunitariorako Arloa eratuko da, eta, bestetik, Banakako Esku-hartzeko Planen Arloa. Arlo bakoitzak bere lan-talde propioa izango du, horrela, profesionalen jarduna bere arloari dagozkion helburuetan oinarrituko da, baina ezinbestekoa izango da bi arloen artean erabateko koordinazioa eta kohesioa jorratzea, esku-hartzea jarraitua izango baita. Hain zuzen ere, esku-hartzeko prozesua bakarra da, eta momentuko beharren arabera sailkatuko da arlo batean edo bestean, esku-hartzearen ardura lan talde batean edo bestean kokatuz, eta horrexegatik, proposatuko da Zuzendaritza taldeak egitea bi taldeen lotura, egiturak ongi funtzionatu dezan.

2. CARACTERÍSTICAS DEL PROGRAMA.

2.1- Características generales:

a) Mediante este servicio se pretende intervenir con personas y familias para:

- Adquirir y desarrollar capacidades (personales, familiares o grupales) para valerse de modo autónomo, socializarse y promover la buena convivencia en el entorno familiar y comunitario.
- Sustituir los hábitos, comportamientos, percepciones, sentimientos y actitudes inapropiadas por otras que sean adecuadas.

b) El servicio se prestará a través de los siguientes programas:

Este servicio de intervención se organizará en dos subgrupos. Siendo conscientes de que el ámbito de atención que debe cubrir el servicio es muy amplia, tanto en colectivos como en objetivos, se espera que la nueva estructuración organizativa facilitará la correcta fijación del la dirección de la actuación profesional del equipo de trabajo y, en consonancia con ello, la correcta alineación de los objetivos y procedimientos de intervención con las principales necesidades de cada beneficiario en cada momento, gestionando asi los recursos de la forma más sostenible.

Así, por un lado, se configura el Área de Prevención y Promoción Comunitaria y, por otro, el Área de Planes de Intervención Individual. Cada área tendrá su propio equipo de trabajo, de forma que la actuación de los profesionales se centre en los objetivos propios de su área, pero será imprescindible abordar la coordinación y cohesión total entre ambas áreas, ya que la intervención será continuada. En concreto, el proceso de intervención es único y se clasificará en función de las necesidades del momento en una u otra área, situando la responsabilidad de la intervención en uno u otro equipo de trabajo, por lo que se propondrá que sea el equipo directivo el que realice la vinculación de ambos

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

grupos para el correcto funcionamiento de la estructura.

Horiek horrela, ezinbestekoa baloratzen da zuzendaritza bakarraren mendekoa izatea zerbitzu osoa, eta zuzendaritza-taldea osatzea bi arloen gidaritzarako. Arlo bakoitzak bere funtzionamendua izango duen arren, esku-hartze integralak edo osotasunean jarduteak ematen diolako eraginkortasuna gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu honi.

Por ello, se valora imprescindible que todo el servicio dependa de una dirección única y que se constituya un equipo directivo para liderar ambas áreas. A pesar de que cada una de las áreas va a tener su funcionamiento, la intervención integral o en su conjunto es lo que aporta eficacia a este servicio de intervención socioeducativa y psicosocial.

Zerbitzua emateko proposamenak osotasunari eman behar dio erantzuna, baina arlo horietako bakoitzak honako gutxieneko definizio edo proposamena jaso beharko du:

La propuesta de prestación del servicio debe responder al conjunto, pero cada una de estas áreas deberá contener la siguiente definición o propuesta mínima:

A- Zerbitzuaren zuzendaritza-taldea:

Zuzendariak, koordinatzaileek eta terapeutak osatuko dute

A- Equipo Directivo del Servicio:

Estará compuesto por la dirección, la figuras de coordinación y de terapeuta.

-Zerbitzu osoaren egitura eta esku-hartzearen irizpideak aztertu, hausnartu eta zainduko dituzte, lan-talde osoarekin lanketa partekatuz. Era berean, arlo bakoitzaren zereginen eta helburu orokorren definizioa, irizpideak partekatzea, kasuen deribaziorako prozedurak zehaztea, bi arloen arteko kohesioa eta koherentzia,… moduko egitekoak garatuko ditu.
-Beste erakunde, eragile eta zerbitzuekin zubiak eraikitzeko zeregina izango du. Harreman egonkorrak eta iraunkorrak sustatuko dira, zerbitzuaren xedearen ezagutza zabalduz, eta lankidetza harremanak sortuz.
-Zaurgarritasun egoeretan, batez ere haurren eta nerabeen babesgabezia egoeretarako atzemate goiztiarraren garrantziaz eta eragileen inplikazioa agintzen duen araubideaz ohartarazteko zeregina ere izango du, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren lankidetzan.

- Analizar, reflexionar y cuidar la estructura y los criterios de intervención de todo el servicio, compartiendo el trabajo con todo el equipo de trabajo. Asimismo, desarrollará tareas como la definición de tareas y objetivos generales de cada área, compartir criterios, definir procedimientos de derivación de casos, cohesión y coherencia entre ambas áreas, etc.
- Tendrá la función de tender puentes con otras instituciones, agentes y servicios. Se fomentarán las relaciones estables y duraderas, ampliando el conocimiento de la finalidad del servicio, y creando relaciones de colaboración.
- En situaciones de vulnerabilidad, especialmente en situaciones de desprotección infantil y adolescente, tendrá también una función de sensibilización sobre la importancia de la detección precoz y el régimen que prescribe la implicación de los agentes, en colaboración con el Departamento de Servicios Sociales y Salud.

Azpiprograma hau egituratu eta garatuko du azpi-talde honek:

Este subgrupo estructurará y desarrollará el siguiente subprograma:

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO UDALA

1- *Esku-hartzearen komunitate-sarea osatzen duten gizarte-eragileei zuzendutako formazioko, sentsibilizazioko eta prebentzioko programa (Gizarte eragileak eta profesionalak gaitzeko, alor honekin arduraz jokatuta, detekzio goiztiarra eta esku-hartze goiztiarra indartzeko)*

2- *Beren kargura haurrak edo nerabeak dituzten familiei aholkularitza eskaintzeko programa (Guraso-gaitasunen eta heziketa-jarraibideei inguruko kezkei erantzuteko informazio eta orientazio puntua).*

1- *Programa de formación, sensibilización y prevención dirigido a agentes sociales que conforman el tejido comunitario de intervención (Capacitar a los agentes sociales y profesionales para potenciar la detección precoz y la intervención temprana desde una actitud responsable en esta materia*)

2- *Programa de asesoramiento a familias con niños, niñas o adolescentes a su cargo (Punto de información y orientación para la respuesta a las inquietudes relacionadas con las capacidades parentales y las pautas educativas).*

B- Prebentziorako eta Sustatze Komunitariorako Arloa:

Koordinatzaile bat eta hiru hezitzaileren lankidetzan garatuko da arloa.

Helburu nagusia izango da komunitate mailan esku-hartzea, izaera prebentiboarekin, zaurgarritasun egoeran dauden herritarrak komunitatean mantentzeko beharrezko loturak sortuz eta harremanak mantentzeko euste-lana eginez, norbanakoaren autonomia maila indartzeko.

Ondorioz, harremanak sortzeko eta sustatzeko helburuarekin, talde mailan esku-hartuko da batez ere, parte-hartzeko baliabide pertsonalak sustatuz, eta komunitateko baliabideetarako igarobidea eraikiz.

Era berean, komunitatean dauden zerbitzu eta eragileekin elkarlanean jardungo da, zaurgarritasun egoeran dauden herritarren beharren eta ezaugarrien inguruko lanketa egingo da, zerbitzuak aniztasunera malgutzeko, eta herritar guztientzako sarbidea errazteko.

Bi sarbide izango ditu zerbitzu honek: Bata, sarbide zuzeneko zerbitzua, bide naturala, komunitateko eragile desberdinen bidez edo herritarren artean ahoz ahokoaren bidez iristen diren herritarrak. Bestea, banakako esku-hartzeko programen arlotik bideratuta.

Sarbide modu honek, atzemate goiztiarra egiteko aukera irekitzen du, eta arlo honetako profesional taldeak, tentuz aztertu beharko ditu

B-Area de Prevención y Promoción Comunitaria:

Esta área se desarrollará entre una figura de coordinación y tres de educación/intervención. El objetivo principal será intervenir a nivel comunitario, con carácter preventivo, creando los vínculos necesarios para mantener a la población en situación de vulnerabilidad en la comunidad y manteniendo las relaciones para reforzar el grado de autonomía individual.

En consecuencia, con el objetivo de crear y fomentar relaciones, se intervendrá sobre todo a nivel grupal, fomentando los recursos personales de participación y construyendo un tránsito hacia los recursos de la comunidad.

Asimismo, se colaborará con los servicios y agentes existentes en la comunidad, se trabajará sobre las necesidades y características de la población en situación de vulnerabilidad, con el fin de flexibilizar los servicios a la diversidad y facilitar el acceso a toda la ciudadanía.

El acceso a este servicio será por dos vías: la más habitual será el acceso directo, las personas accederá directamente por medio del boca a boca, y o a propuesta de diferentes agentes de la comunidad. La otra vía será la derivación interna, desde el ámbito de los programas de intervención individual.

Esta forma de acceso abre la posibilidad de una detección precoz y el equipo de profesionales de esta área deberá analizar con cautela los indicadores de riesgo para activar, en su caso, los procedimientos de derivación

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

arrisku adierazleak, kasuan kasu, dagokion bideratze-prozedurak aktibatzeko.
Beraz, talde izaerako esku-hartzearen bidez egituratuko den arren zerbitzu hau, parte-hartzaile bakoitzaren behaketa eta jarraipena egingo da, gizarte gaitasunetan eta komunitateko baliabideen erabilpenean ezarriz banakako jarraipenaren oinarria.

Talde izaerako azpi-programa hauek egituratu eta garatuko ditu azpi-talde honek:

3. Haur eta nerabeen talde izaerako esku-hartzea komunitatean programa; batik bat, gizarteratzeko zailtasunak dituzten, edo arrisku-adierazleak dituzten haur eta nerabeei zerbitzua ematen diena.

4. Heldu-aroan dauden pertsonekin talde izaerako esku-hartzea komunitatean programa; batik bat, zaurgarritasun egoeran dauden gurasoei edo gizarteratze-arloan zailtasunak dituztenei zerbitzu ematen diena.

5. Adineko pertsonekin talde izaerako esku-hartzea komunitatean programa; batik bat, hauskortasun egoeran dauden, eta gizarteratze arloan zailtasunak dituzten eta nahi gabeko bakardade egoeran dauden pertsonei zerbitzu ematen diena.

C- Banakako Esku-hartzeko Planen Arloa

Koordinatzaile bat eta erdi, 4 hezitzaile eta terapeutaren lankidetzan garatuko da arloa.
Helburu nagusia izango da banakako esku-hartzeko programak garatzea, adierazleak kontuan izanda, lanketa egituratu baten beharra atzematen denean, arrisku egoeren larritasuna egiaztatzeko, larritasun maila eutsi edo gutxitzeko, edota beharrezko segurtasun eta babeseko neurriak bermatzeko.
Banakako esku-hartze planak eraginkorrak izateko helburu zehatzak markatuko dira, neurgarriak eta denboran ongi mugatutakoak,

correspondientes.
Por tanto, aunque este servicio se articulará a través de una intervención de carácter grupal, se realizará la observación y seguimiento de cada participante, estableciendo la base del seguimiento individualizado en las capacidades sociales y en el uso de los recursos comunitarios.

Este subgrupo estructurará y desarrollará los siguientes subprogramas de carácter grupal:

3. Programa de intervención comunitaria de carácter grupal de niños, niñas y adolescentes, especialmente el que presta servicio a niños, niñas y adolescentes con dificultades de inserción social o con indicadores de riesgo.

4. Programa de intervención comunitaria de carácter grupal con personas adultas, que presta servicio, a padres/madres y otras personas adultas en situación de vulnerabilidad o con dificultades de inserción social.

5. Programa de intervención comunitaria de carácter grupal con personas mayores, que da servicio a personas en situación de fragilidad, con dificultades de integración social y en situación de soledad no deseada.

C- **Área de Planes de Intervención Individual**

El área se desarrollará en colaboración con una figura de coordinación y medio, 4 de educación/intervención y la del terapeuta.
El objetivo principal será el desarrollo de programas de intervención individual, siempre que se detecte la necesidad de una intervención estructurada, ya sea para evaluar la gravedad de las situaciones de riesgo, para contener o reducir el nivel de gravedad, o sea para garantizar las medidas de protección necesarias.
Se marcarán objetivos concretos a fin de promover la eficacia de los planes

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

eta eskuragarri dauden baliabide pertsonal, komunitate mailako, tekniko edo ekonomikoak aktibatuko dira, beti ere balorazio teknikoak proposatzen duenaren arabera.
Banakako esku-hartzeko planak aktibatuko dira zaurgarritasunaren arrisku maila ertaina dela adierazten duten adierazleak daudenean, izan haurren eta nerabeen babesgabezia arriskua egoteagatik, izan bazterkeria arriskua egoteagatik, balorazioa behar duen larrialdi-egoera batean egoteagatik, edo hauskortasun edo nahi gabeko bakardade egoera larriarengatik.
Batez ere adingabeen babeseko egoeretan esku-hartzearen jarraipen zehatza egingo da, eta larritasuna areagotu delako udalaren eskumeneko mugak gainditzen dituzten adierazleak atzemandakoan, premia biziz bideratuko da informazioa dagokion zerbitzu espezializatura. Modu berean, larritasun maila arindu eta arrisku maila ekiditea edo arina izatea lortzen denean, esku-hartzeko plana amaitutzat emango da, dagokion baliabide komunitarioen bidez jarraipena egin dadin ahalbidetuz.

individualizados de intervención, siendo medibles y en tiempo, y se activarán todos los recursos personales, comunitarios, técnicos o económicos disponibles, en función de lo que proponga la valoración técnica.

Los planes de intervención individual se activarán cuando existan indicadores que indiquen un nivel medio de riesgo de vulnerabilidad, ya sea por riesgo de desprotección infantil y adolescente, riesgo de exclusión, situación de emergencia que requiera valoración, o situación grave de fragilidad o soledad no deseada. Sobre todo se realizará un seguimiento exhaustivo de la intervención en situaciones de protección de menores, y cuando se detecten indicadores que superen los límites de competencia municipal por el aumento de la gravedad, se canalizará la información con urgencia al servicio especializado correspondiente. Del mismo modo, cuando se logre paliar el nivel de gravedad y evitar o mantener el nivel de riesgo, se dará por finalizado el plan de intervención, posibilitando el seguimiento a través de los recursos comunitarios correspondientes.

Azpi-programa hauek egituratu eta garatuko ditu azpi-talde honek:

6. *Haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoerak atzemateko, baloratzeko eta jarraipena egiteko programa.*

7. *Babesgabetasuneko arrisku-egoera arin edo ertainean dauden adingabeekin eta beren familiekin esku-hartzeko programa.*

8. Udalaren *Alojamendu alternatiboko baliabideetan bizi direnekin esku-hartzeko programa, izan bazterkeria-egoeran edo arriskuan egoteagatik, larrialdi-egoerei erantzuteko neurri moduan, edo mendekotasun-arriskuko egoeran egoteagatik.*

Este subgrupo estructurará y desarrollará los siguientes subprogramas:

6. Programa de detección, valoración y seguimiento de situaciones de desprotección infantil y adolescente.

7. Programa de intervención con personas menores de edad en situación de riesgo de desprotección leve o moderado y sus familias.

8. Programa de intervención con personas residentes en recursos municipales de alojamiento alternativo, ya sea por encontrarse en situación o riesgo de exclusión, como medida de respuesta a situaciones de emergencia o en situación de riesgo de dependencia.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO
UDALA

9. *Hauskortasun eta bakardade egoeran dauden pertsonekin esku-hartzeko programa.*

(Oharra: ZERBITZUAREN ESKAINTZAREKIN AURKEZTEN DIREN MEMORIEK ZEHATZ-MEHATZ JASO BEHARKO DUTE PROGRAMA HAUETAKO BAKOITZAREN DESKRIBAPENA, NOLA GARATUKO DEN; argituz izango duen diseinu teorikoa, flujograma eta kudeatzeko erabiliko diren prozedurak, baliabide pertsonalak eta espazioa,…)

c) Programa guztiek erabateko koordinazioa eta elkarreragina izango dute, esku-hartzeko baliabideak eta metodologia partekatuko dituzte, eta esku-hartzeak bata bestearekin lotuko dituzte eta jarraipena eman, arreta pertsonalizatuko planean jasotako helburuak lortze aldera.

d) Zerbitzuak jorratuko du harremana komunitateko eragile guztiekin, zerbitzuaren inguruko informazioa zabalduko du, lan-esparruari dagokion aholkularitza zerbitzua eskainiko du, eta, batez ere, babesgabeziaren alorrean erantzunkidetasuna eta lankidetza sustatuko ditu.

Ezinbestekoa da alor honetan komunitatean dauden baliabideen arteko ezagutza eta lankidetza, bai babesgabetasuneko eta bazterkeriako arrisku-egoerak lehenbailehen atzemateko, eta baita esku-hartze integral eta txertatzaileak sustatzeko ere. Beraz, programa hau garatuko duen taldeak ezinbestean landu beharko du elkarlana komunitateko gainerako baliabideekin, batez ere ikastetxeekin, osasun arloko profesionalekin... sentsibilizazio-lana eginez, eta informazio trukaketa eraginkorra egiteko bideak landuz.

9. *Programa de intervención con personas en situación de fragilidad y soledad.*

(Nota: LAS MEMORIAS QUE CONTENGAN LA PROPUESTAS PARA LA PRESTACIÓN DE ESTE SERVICIO DEBERAN DEFINIR DETALLADAMENTE UNA PROPUESTA ESPECÍFICA SOBRE EL DESARROLLO DE CADA UNO DE LOS PROGRAMAS QUE SE HAN SEÑALADO EN EL APARTADO ANTERIOR, incluyendo el diseño teórico, el flujograma y procedimiento concreto, recursos personales, la gestión del espacio,…).

c) Todos los programas tendrán plena coordinación e interacción entre sí; compartirán los recursos y la metodología de intervención, vinculando y dando continuidad a las intervenciones, a fin de conseguir los objetivos previstos en los planes de atención personalizada.

d) El servicio abordará la relación con todos los y las agentes de la comunidad, difundirá información sobre el servicio, ofrecerá un servicio de asesoramiento adecuado al ámbito de intervención y, sobre todo, fomentará la corresponsabilidad y la colaboración en materia de desprotección.

Es imprescindible el conocimiento mutuo y colaboración entre los diversos medios o recursos de que dispone la comunidad en este ámbito, tanto para la detección inmediata de las situaciones de protección o de riesgo, como para la promoción de intervenciones integrales e inclusivas. Por lo tanto, el grupo o equipo que vaya a desarrollar este programa deberá, necesariamente, trabajar la colaboración con los demás medios de la comunidad, en especial con los colegios, profesionales sanitarios… y, para ello, realizar una labor de sensibilización y proyectar vías para un intercambio de información efectivo.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO
UDALA

e) Arreta Pertsonalizatuko Planek eta garatzen diren programek koordinatzaile bat izango dute, eta hura arduratuko da beharrezko informazio guztia Gizarte Zerbitzuetako Saileko erreferentziazko gizarte langilearekin partekatu eta programaren eta arreta pertsonalizatuko planen jarraipena egiteaz.

e) Cada uno de los Planes de Atención Personalizada y de los programas de intervención que se desarrollen en este servicio contarán con un coordinador o coordinadora, que se encargará de trasladar la información al o a la trabajadora social de referencia del Área de Servicios Sociales y Salud, y realizar así, el seguimiento de los programas y de los planes de atención personalizada.

f) Era berean, zerbitzuak zuzendari bat izango du, zerbitzuaren izaera bateratua eta esku-hartze integrala bermatuko duena. Profesional horrek egingo du Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko kontratuaren arduradunarekin zerbitzuaren inguruko jarraipena.

f) Asimismo, el servicio contará con un director o directora, que garantizará el carácter unitario del servicio y la intervención integral. Esa figura profesional se encargará de realizar el seguimiento del Servicio con la persona responsable del contrato del Área de Servicios Sociales y Salud.

Orokorrean, zerbitzuaren zuzendaritza-taldeak (gutxienik zuzendariak eta programen eta kasuen koordinatzaileak) erabateko lotura izango du Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailarekin (erreferentziazko gizarte langileekin eta kontratuaren arduradunarekin).

Con carácter general, el equipo directivo del servicio (al menos el/la director/a y los/las coordinadores/as) estará plenamente vinculado al Área de Servicios Sociales y Salud (con el o la trabajadora social de referencia y con la responsable del contrato).

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

g) Zerbitzu hau garatuko da beti adingabeen interes gorenak beste edozein interesen gainetik duen lehentasuna errespetatuz, prebentzio-ekintzei lehentasuna emanez, eta familia integrazioa eta familiaren elkartasuna lehenetsiz.

g) Este servicio se desarrollará, siempre, respetando la prioridad del interés supremo del/la persona menor de edad sobre cualquier otro interés, dando prioridad a las acciones preventivas y priorizando la integración familiar y solidaridad de la familia.

h) Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuaren bidez honako prestazio hauek emango dira:

- Informazioa.
- Gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea.
- Jarraipenaren balorazioa.
- Lagun egite soziala.
- Bitartekaritza – Bitartekotza.

h) Se darán las siguientes prestaciones a través del servicio de intervención socioeducativa y psicosocial:

- Información.
- Intervención socioeducativa y psicosocial.
- Valoración del seguimiento.
- Acompañamiento social.
- Mediación – Intermediación.

i) Banakako Esku-hartzeko Planen Arloaren zerbitzua eskainiko da Arreta Pertsonalizatuko Planaren baitan. Plan hori koordinatzaileak proposatuko du eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko erreferentziazko gizarte langileak onartuko du. Behin onartuta, esku-hartzearen arduradunak garatuko du, koordinatzailearen gainbegiradaren pean.

i) En el Ambito de Planes individuales de intervención, el servicio se prestará en el marco del Plan de Atención Personalizada. Dicho plan será propuesto por la persona coordinadora y aprobado por el o la trabajadora social de referencia del Área de Servicios Sociales y Salud. Una vez aprobado, será desarrollado por la persona responsable de la intervención, bajo la supervisión de la coordinadora o el coordinador.

Arreta Pertsonalizatuko Plana garatzerakoan, gutxienez honako informazio hau proposatuko da:
- egoeraren diagnostikoa
- esku-hartzearen helburuak
- esku-hartzeko saioen izaera:(hezitzaileak, terapeutikoak edo lagun egitekoak)
-esku-hartzeko saioen modalitatea (banakakoak, familiakoak edo taldekakoak)
- esku-hartzeko saioak garatuko diren esparrua (familiaren etxebizitza, esku-hartze zerbitzuaren bulegoa, edo komunitateko beste edozein eraikin edo esparru)
- aurreikusitako saio kopurua eta esku-hartzearen iraupena.

En el desarrollo del Plan de Atención Personalizada se propondrá al menos la siguiente información:
- diagnóstico de la situación
- objetivos de la intervención
- carácter de las sesiones de intervención (educativas, terapéuticas o de acompañamiento)
- modalidad de las sesiones de intervención (individuales, familiares o grupales)
- El ámbito en el que se desarrollarán las sesiones de intervención (vivienda familiar, oficina del servicio de intervención, o cualquier otro edificio o recinto comunitario)
- número de sesiones previstas y duración de la intervención.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

j) Prebentziorako eta Sustatze Komunitarioko Arloak izaera prebentiboarekin lan egingo du, beti ere zaurgarritasun egoeran dagoen pertsonak harremanak eraikitzea eta komunitateko baliabideetan parte hartzea bideratzeko gaitasunak jorratuz. Esku-hartze horretan, lehenetsiko da bakoitzak bere ingurune naturalean garatzea beharrezkoak dituen sare/harreman eta babeseko baliabideak. Norbere hurbileneko komunitatearekin harremanak indartzea eta segurtasuneko guneak eraikitzea izango da helburua, eta horretarako, komunitateko baliabide desberdinak baliatuko ditu prozesu eraginkorrak garatzeko; baita auzo elkarteetako erreferenteekin ere.

Era berean, esku-hartze horrek erabateko lankidetzan aritu beharko du Tolosako Udalak sustatutako gainerako zerbitzu eta/edo proiektu komunitarioekin (zaintza-ekosistema, ongizate emozionala, suizidioaren prebentzioa, haurren hiria, Gazte topagunea, Auzoekin, ...) eta zerbitzu horren xede-kolektiboari zuzenduta daudenekin, proiektu horiek ezartzeko orduan erabateko lankidetzan eta koordinatuta jardungo da.

2.2.-Onuradunak:

Zerbitzu honen onuradunak honako hauek izango dira:

a) Tolosan bizi diren familiak, adingabeen zaintza bere gain dutenean, eta Gizarte Zerbitzuek egindako balorazioan babesgabetasunaren aurreko zaurgarritasun egoera dutela edo/eta babesgabetasun-arrisku arinean edo ertainean daudela ondorioztatzen badute, beti ere haurren eta nerabeen babeseko zerbitzu espezializatuek esku-hartzen ez badute.

Salbuespen gisa, onuradun izaten jarraituko dute:

j) El Área de Prevención y Promoción Comunitaria trabajará con carácter preventivo, abordando las capacidades para facilitar la construcción de relaciones y la participación de las personas en situación de vulnerabilidad en los recursos comunitarios. En esta intervención se priorizará el desarrollo de los recursos de red/relación y protección necesarios en su entorno natural. El objetivo será reforzar las relaciones con la comunidad más cercana y construir espacios de seguridad, utilizando los diferentes recursos de la comunidad para desarrollar procesos eficaces, así como con los referentes de las asociaciones de vecinos.

Asi mismo, esta intervención deberá responder y deberá colaborar con el resto de servicios y/o proyectos de índole comunitario que se están inpulsando desde el Ayuntamiento de Tolosa y están dirigidos a colectivo destino de este servicio (ecosistema de cuidados, bienstar emocional, prevención de suicidio, haurren hiria, Gazte topagunea, Auzoekin,…) debiendo existir total colaboración y coordinación a la hora de implementar esos proyectos.

2.2.- Personas beneficiarias:

Serán beneficiarias de este servicio:

a) Las familias residentes en Tolosa, con personas menores de edad a su cargo que en la valoración realizada por los Servicios Sociales tengan constatada la presencia de vulnerabilidad a la desprotección, o riesgo de desprotección leve o moderado, y que no estén en proceso de intervención de los servicios especializados de protección a la infancia y adolescencia.

Excepcionalmente, seguirán beneficiándose de este servicio:

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

- 18 urte bete dituzten gazteak, esku-hartzea mantentzea komenigarria dela onartzen badu erreferentziazko gizarte langileak.

- Haurren eta nerabeen babeseko zerbitzu espezializatuek esku-hartzen duten familietako kideek, garatzen ari diren esku-hartzearekin bateragarria eta adingabeen interesekoa dela onartzen badu erreferentziazko gizarte langileak.

b) Tolosan bizi diren adinez nagusiko pertsonak, eta beren familiak, baldin eta Udaleko Gizarte Zerbitzuen eskumeneko alojamendu alternatiboko baliabide batean bizi badira, eta Gizarte Zerbitzuek egindako balorazioan esku-hartze zerbitzuaren beharra atzeman bada.
Salbuespen gisan, zerbitzuaren onuradun izan daitezke udalaren alojamendu alternatiboan bizi ez arren, erreferentziazko gizarte langileak egindako balorazioaren arabera, bizileku-autonomia mantentzeko esku-hartzeko prozesu neurtu baten beharra duten pertsona helduak, beti ere gizarteratze premietan edo mendekotasunaren prebentzioaren premietan oinarritutako zaurgarritasun egoeretan.

c) Tolosan bizi diren pertsona adinduak, Gizarte Zerbitzuek egindako balorazioan mendekotasun-arineko egoeran daudela edo egoera horren aurreko zaurgarritasun-egoeran daudela ondorioztatzen bada.

- Jóvenes que hayan cumplido 18 años, en caso de que el o la trabajadora social de referencia valore la conveniencia de mantener la intervención.

- Miembros de las familias que están en proceso de intervención de los servicios especializados de protección a la infancia y adolescencia, siempre que el o la trabajadora social de referencia considere que se responde al interés de las personas menores de edad, y es compatible con esa intervención.

b) Personas mayores de edad residentes en Tolosa y sus familias que residan en un recurso de alojamiento alternativo competencia de los Servicios Sociales del Ayuntamiento y en cuya valoración por parte de los Servicios Sociales se ha detectado la necesidad del servicio de intervención.
Excepcionalmente, podrán beneficiarse de este programa las personas adultas que, aun no residiendo en un alojamiento alternativo, su trabajador/a social de referencia valora que requiere de un proceso concreto de intervención para mantener su autonomía siempre fundamentada en una situación de vulnerabilidad por riesgo de exclusión y/o de dependencia.

c) Personas mayores residentes en Tolosa, siempre que en la valoración realizada por los Servicios Sociales se concluye una situación vulnerabilidad previa a la situación de dependencia.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

2.3.-Jarduketa protokoloa:

a. Banakako Esku-hartzeko Planen Arloari dagokionez, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailean hasiko da beti esku-hartzea. Orokorrean, erreferentziazko gizarte langileak egingo ditu egoeraren diagnostikoa, balorazioa eta esku-hartzearen planteamendua; eta atzematen badu babesgabetasun, bazterkeria edo mendekotasunaren aurreko egoeraren adierazleak daudela, Esku-hartze zerbitzura bideratu edo ez aztertuko du.

- Haurren eta nerabeen babesari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2004. urtean landutako gida hau hartuko da oinarritzat: «Haurrak babesik gabeko egoeretan daudenean esku-hartzeko gida».

- Salbuespena aurreikusten da «Beren kargura haurrak edo nerabeak dituzten familien aholkularitza-programa; guraso-gaitasunen edo heziketa-jarraibideei buruzko kezkak artatzeko informazio- eta orientazio-puntua». Honetan, orientazioa behar duten familiek zuzenean zerbitzura deitzeko aukera aurreikusten da, eta familia bakoitzari 2 saiotan erantzuna ematea (lehenengo saioa, telefono bidez, eta bigarrena, aurrez-aurrekoa, beharrezkoa dela baloratzen denean). Eta salbuespen bera aplikatuko da Prebentziorako eta Sustatze Komunitariorako Arlorako jasotako esku-hartze komunitarioari dagokionez, zuzeneko sarbidea aurreikusi baita.

b. Esku-hartze zerbitzua abiaraztea komeni dela ondorioztatzen badu erreferentziazko gizarte langileak, pertsona edo familiari azalduko dio esku-hartze zerbitzuaren inguruko informazioa (funtzioak, lan-metodologia, helburuak) eta proposatuko dio baliabidea onartzea.

2.3.- Protocolo de actuación:

a. En cuanto al Área de Planes de Intervención individualizados, la intervención se iniciará siempre en el Área de Servicios Sociales y Salud, y con carácter general, será el o la trabajadora social de referencia la que realice el diagnóstico, la valoración y el planteamiento de la intervención y, en caso de detectar la existencia de indicadores de la situación previa a la desprotección, exclusión y/o dependencia, estudiará derivarla o no al Servicio de Intervención.

- En cuanto a la protección de la infancia y la adolescencia, se tomará como base la «Guía de intervención ante situaciones de desprotección infantil» elaborada por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el año 2004.

- Se prevé una excepción para el «Programa de asesoramiento a familias con niños, niñas o adolescentes a su cargo; punto de información y orientación para atender consultas relacionadas con las capacidades parentales y/o pautas educativas». En este caso, se prevé que las familias que necesiten orientación llamen directamente al servicio, y se atienda esa demanda en 2 sesiones (la primera, telefónica, y la segunda presencial, siempre que se considere necesario). Lo mismo ocurre con la intervención comunitaria prevista para el Área de Prevención y Promoción comunitaria, ya que se ha previsto la posibilidad de acceso directo.

b. Si el o la trabajadora social de referencia concluye la conveniencia de activar el servicio de intervención, informará a la persona y/o familia sobre el mismo (funciones, metodología de trabajo, objetivos) y le propondrá su aceptación.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

c. Parte hartzea onartzen badu, konpromisoa sinatuko du onuradunak, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailak zerbitzua kudeatuko du, dagokion erabaki administratiboaren bidez ebatziko delarik.

d. Erreferentziazko gizarte langileak Esku-hartzeko zerbitzuan arreta pertsonalizatuko planak koordinatzen dituen profesionalari bideratuko dio egoeraren inguruko funtsezko informazioa, eta honek informazio hori aztertutakoan, esku-hartzearen arduraduna izendatuko du; esku-hartzearen arduraduna izango da koordinatzailea bera, terapeuta edo hezitzailea, beti ere egin beharreko esku-hartze mota nagusiaren arabera egingo da izendapen hori.

e. Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko erreferentziazko gizarte langileak onuradunari aurkeztuko dio/dizkio esku-hartzearen garatuko duten profesionalak (koordinatzailea eta arduraduna).

f. Esku-hartzearen arduradunak onuradunaren egoera sakonki ebaluatuko du, eta koordinatzaileak Ebaluazio Txostena eta Arreta Pertsonalizatuko Planaren proposamena aurkeztuko dizkio erreferentziazko gizarte langileari. (Horretarako, gehienez ere **2 hilabeteko** epea izango da).

> * Edozein kasutan, baina batez ere haurren eta nerabeen babesari dagokionez, ebaluazio-txosten horretan argi eta garbi adieraziko da babesgabezia egoeraren arrisku mailaren izendapena; baita bazterkeria egoeraren arrisku maila edo mendekotasunaren arrisku mailari dagokionez ere. Eta Udalaren eskumenekoa **EZ** den egoera antzematen bada, edo zerbitzu espezializatuaren bat kudeatu beharra baloratzen bada, balorazio-txostena egokitu egingo da eskumena duen

c. En caso de aceptarlo, el/la beneficiario/a firmará el compromiso, y el Área de Servicios Sociales y Salud gestionará el servicio, que se resolverá mediante resolución administrativa.

d. El o la trabajadora social de referencia trasladará la información esencial sobre la situación al/a la profesional que coordina los planes de atención personalizados del Servicio de Intervención, quien, una vez analizada dicha información, designará al o a la responsable de la intervención. El o la responsable de la intervención podrá ser el mismo coordinador/a, el/la terapeuta o el/la educador/a), y el nombramiento se realizará siempre en función del tipo de intervención principal que se requiera.

e. El/la trabajador/a social de referencia (Área Servicios Sociales y Salud) presentará a la persona beneficiaria los profesionales que van a desarrollar la intervención (coordinador/a y responsable).

f. El/la responsable de la intervención evaluará en profundidad la situación de la persona beneficiaria y el o la coordinadora presentará al o a la trabajadora social de referencia el Informe de Evaluación y la propuesta de Plan de Atención Personalizada (para ello se dispondrá de un plazo máximo de **2 meses**).

> *En todo caso, pero especialmente en lo que se refiere a la protección de la infancia y la adolescencia, en dicho informe de evaluación se indicará claramente la catalogación del nivel de riesgo de la situación de desamparo, así como en el nivel de riesgo de exclusión o de dependencia. Y si se detecta una situación que **NO** es de competencia del Ayuntamiento o se valora la necesidad de gestionar algún servicio especializado, el informe de valoración se adaptará para su derivación al servicio competente. En este caso no se desarrollará el Plan de Atención

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

zerbitzura bideratzeko. Kasu horretan, ez da garatuko Arreta Pertsonalizatuko Plana, erreferentziazko gizarte langileak propio eskatzen ez badu.

* Arreta Pertsonalizatuko Plana proposatzerakoan, Esku-hartze zerbitzuak argi eta garbi adieraziko ditu diagnostikoa eta plan horren helburu zehatzak. Helburuak neurgarriak izango dira.
Gainera, planak iraupen muga argia izango du, gehienez ere **urte bat**. Epe horretan landuko diren saioen izaera eta kopurua ere jasota egongo dira planean.
Hasierako plana beste 6 hilabetez luzatzeko aukera egongo da, beti ere aurreikusitako helburuak lortzeko edo finkatzeko beharrezkoa dela onartzen badu erreferentziazko gizarte langileak.

Personalizada, a no ser que exista una demanda expresa de la/el trabajador social de referencia.

* A la hora de proponer el Plan de Atención Personalizada, el Servicio de Intervención indicará claramente el diagnóstico y los objetivos concretos de dicho plan, que deberán ser medibles.
Además, el plan tendrá claramente definido su duración y no será superior a **un año.** El plan también recogerá la naturaleza y número de sesiones a desarrollar en dicho periodo.
El plan inicial podrá ser prorrogado por otros 6 meses, siempre que la/el trabajador social de referencia apruebe que es necesario para alcanzar o consolidar los objetivos previstos.

g. **Hiru hilean** behin, Arreta Pertsonalizatuko Plan guztiak berrikusiko dira, eta informazio hori partekatuko da Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko erreferenteekin.
Dena den, familiaren edo onuradunaren egoera bat-batean aldatzen bada, premiaz erantzun beharreko egoerak sortuz, berehala jakinaraziko zaio erreferentziazko gizarte langileari eta esku-hartze plana berrikusteko epeak aurreratu egingo dira.

g. **Trimestralmente**, se revisarán todos los Planes de Atención Personalizada y se trasladará esta información a las referentes del Área de Servicios Sociales y Salud.
No obstante, si la situación de la familia o de la persona beneficiaria se viera alterada de forma sobrevenida, dando lugar a situaciones de necesidad, se informará inmediatamente al o a la trabajadora social de referencia y se adelantarán los plazos de revisión del Plan de Intervención.

h. Esku-hartzea hasten denetik **6 hilabetera,** jarraipen-txostena aurkeztuko du Esku-hartze zerbitzuak. Jarraipen-txosten horretan argi eta garbi jasoko da egindako esku-hartzearen inguruko informazio xehea eta lan egin duten profesional guztien iritzia.

Era berean, bertan jasoko dira momentuko arrisku mailaren inguruko balorazioa eta Arreta Pertsonalizatuko Planari dagozkion proposamenak.
Egindako balorazioaren eta proposamenen inguruko iritzia eskatuko zaie, beti, esku-hartze

h. En el plazo de **6 meses** desde el inicio de la intervención, el Servicio de Intervención presentará un informe de seguimiento, en el que se recogerá claramente la información detallada de la intervención realizada y la opinión de todos/as los/las profesionales que han trabajado.
Asimismo, incluirá la valoración del nivel de riesgo existente en ese momento y las propuestas correspondientes al Plan de Atención Personalizada.
En todo caso, se recabará la opinión de todos/as los y las agentes implicados en la intervención y de la persona beneficiaria sobre

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

horretan inplikatutako eragile guztiei eta onuradunari, eta jarraipen-txostenaren amaieran jasoko da iritzi hori.

i. Esku-hartzea **bukatu baino hilabete lehenago** aurkeztuko du Esku-hartze zerbitzuak azken txostena. Bertan, momentuko arrisku maila baloratuko du eta esku-hartzearen inguruko proposamenak egingo ditu (luzatu; itxi eta beste helburu batzuekin esku-hartze berri bat hasi, arrisku maila areagotu delako; zerbitzu espezializatura bideratu; intentsitate baxuagoko komunitateko beste baliabide batera bideratu...).

j. Urtero, entitate adjudikaziodunak esku-hartzean egindako lanaren memoria-balantzea egingo du, eta gutxieneko puntu hauek azalduko ditu: esku-hartzeen kopurua; egindako esku-hartzeen arrisku maila eta maila horretan izandako eboluzioaren inguruko datu estatistikoak; artatutako kasuen ordu kopurua esku-hartze mota bakoitzeko; urte guztiko fakturazioa; eta zerbitzuaren zailtasunak, zerbitzuaren indarguneak eta hobetzeko proposamenak.

la valoración y propuestas realizadas, que se recogerá al final del informe de seguimiento.

i. El Servicio de Intervención presentará el informe final **un mes antes de la finalización** de la intervención. En ese informe se valorará el nivel de riesgo existente y podrá realizar propuesta en torno a la intervención (prorrogarla; cerrarla y abrir una nueva intervención con otros objetivos por un aumento de nivel de riesgo; derivarla a otro recurso de la comunidad, pero de intensidad más baja...).

j. La entidad adjudicataria deberá realizar anualmente una memoria/balance de la intervención llevada a cabo, en la que al menos se incluirán los siguientes puntos: número de intervenciones; datos estadísticos sobre el nivel de riesgo y evolución de las intervenciones realizadas en dicho nivel; número de horas de los casos atendidos por cada tipo de intervención; la facturación de todo el año; y las fortalezas y las dificultades del servicio y las propuestas de mejora.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO
UDALA

3. GUTXIENEKO ESKAKIZUNAK

A) Zerbitzua non emango den

Zerbitzu-emaileak zerbitzua emateko espazio egokia izan beharko du Tolosan, esku-hartzea Tolosan garatu beharko baitu osorik, eta, era berean, hura erabili beharko baitu arreta zuzena egiteko, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailarekin edo komunitateko beste eragileekin koordinatzeko.

Horretarako, zerbitzua emango den lokalak Tolosako hirigunean egon beharko du, 100 metro koadroko gutxieneko azalera erabilgarria izango du (% 10eko margenarekin) eta erabat irisgarria izango da. Gainera, atxikitako lokalaren azalera adierazitakoa baino handiagoa bada, enpresak, egoki baderitzo, lan osagarriak edo barne-kudeaketakoak egin ahal izango ditu espazio gehigarri horretan, kontratuaren jardueraren ohiko funtzionamenduari eragiten ez diotenak edo eragozten ez diotenak, hala nola administrazio-lanak. Aitzitik, lokalaren azalera 100 metrotik gorakoa ez bada, enpresak beste lokal bat erabili ahal izango du barne-kudeaketako zeregin horiek egiteko, eta ez zaio gutxieneko ezaugarririk eskatuko, ez baititu zerbitzuaren erabiltzaileak hartuko.

Nolanahi ere, espazio horiek bermatu behar dute lan-taldeak bulegoko lanak egiteko nahikoa leku, eta Arreta Pertsonalizatuko Planetan aurreikusitako jarduerak egoki garatzeko (batez ere ohikoak diren talde jarduerei dagokienez).

3. REQUISITOS MÍNIMOS

A) Lugar de prestación del servicio

La empresa prestadora del servicio deberá disponer de un espacio adecuado para la prestación del servicio en Tolosa, ya que deberá desarrollar la intervención en su totalidad en Tolosa, así como la atención directa y la coordinación con el Área de Servicios Sociales y Salud u otros agentes de la comunidad.

A tal efecto, el local donde se vaya a prestar el servicio deberá estar ubicado en el casco urbano de Tolosa, tendrá una superficie útil mínima de 100 (con un 10% de margen) metros cuadrados y será totalmente accesible. Además, si la superficie del local adscrito fuera superior a la indicada, la empresa podrá realizar en ese espacio adicional, si así lo considerase oportuno, tareas complementarias o de gestión interna que no afecten o interfieran en el normal funcionamiento de la actividad del contrato, tales como labores administrativas. Si, por el contrario, la superficie del local no fuese superior a 100 metros, la empresa podrá utilizar otro local para para realizar dichas tareas de gestión interna, no exigiéndose unas características mínimas al mismo, dado que no va a recibir a usuarios del servicio..

Estos espacios deben garantizar el espacio necesario para que el equipo de trabajo pueda realizar las tareas de oficina y para el correcto desarrollo de las actividades previstas en los Planes de Atención Personalizada (sobre todo en las actividades grupales habituales).

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

Gainontzean, behar jakin batzuei erantzuteko, erabili ahal izango dira Udalaren jabetzako edo bestelako komunitate-baliabideetako espazioak, horretarako behar diren erreserba-izapideak eginda.

Era berean, aurreko puntuetan azalduta dagoen moduan, Arreta Pertsonalizatuko Planak egituratzerakoan, onuradunekin egin beharreko esku-hartzeak programatu daitezke beste espazio batzuetan: onuradunen bizilekuan, kalean, komunitateko espazioetan, edo Tolosako Udalaren Familia Gunean, beti ere esku-hartze saioaren onura maximizatzeko egokiena den proposamena eginda.

Por lo demás, se podrán utilizar espacios de propiedad municipal u otros recursos comunitarios, realizados los trámites de reserva necesarios, para atender necesidades puntuales.

Asimismo, tal y como se ha explicado en los puntos anteriores, a la hora de estructurar los Planes de Atención Personalizada, se pueden programar las intervenciones con las personas beneficiarias en otros espacios: en el domicilio de las personas beneficiarias, en la calle, en los espacios comunitarios, o en el Punto de Encuentro Familiar del Ayuntamiento de Tolosa. La ubicación se adecuará a las características familiares, buscando, siempre, obtener el máximo beneficio de las intervenciones.

B) Lan-taldea

Zerbitzua bere osotasunean eskaintzeko, gutxienez, honako lan-talde hau bermatuko du zerbitzu-emaileak.

***Zuzendaria** *lanaldi erdian* lana egiteko.

Orokorrean, gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua zuzentzeko ardura izango du, eta horretarako honako eginkizun hauek garatu beharko ditu:

-Gizarte-politiken eta gizarte-programen etengabeko analisia eta ebaluazioa, esku-hartzeko zerbitzuaren jarduera gidatzeko;

-Kudeaketa-tresnen ezagutza eta aplikazioa, zerbitzu honen etengabeko ebaluazioa egiteko eta hobekuntzak proposatzeko;

-Gizarte-erakundeen erregulazio juridikoa eta fiskala menperatzea, eta administrazioarekin kontratatzeak eragindako ardurak bermatzea.

-Administrazioaren aurrean zerbitzuaren ordezkaria izatea;

B) Equipo de trabajo

La empresa prestadora del servicio garantizará, como mínimo, el siguiente equipo de trabajo para la prestación integral del servicio.

***Director o directora** para trabajar *a media jornada*.

Con carácter general, será la persona responsable de dirigir el servicio de intervención socioeducativa y psicosocial desarrollando las siguientes funciones específicas:

- Análisis y evaluación continua de las políticas y programas sociales para guiar la actividad del servicio de intervención.
- Conocer de las herramientas de gestión para la evaluación continua de este servicio y la propuesta de mejoras, y su aplicación.
- Dominar la regulación jurídica y fiscal de las entidades sociales y garantizar las responsabilidades derivadas de la contratación con la administración.
- Ostentar la representación del servicio ante la Administración.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

- Antolakundearen eta administrazioaren arteko bitartekaritza;
- Lan-taldearen gidaritza eta zuzendaritza;
- Gizarte-eragileen elkarrekintza- eta erlazio-mekanismoen inguruko lanketa;
- Gizarte Zerbitzuen Legearen eta hori garatzeko gainerako arauen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolaketa menperatzea (eskumenen banaketa), eta ezagutza izatea jarduketa-alorraren eta sistemaren antolaketa eta diagnostikorako tresnen inguruan (BALORA, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeen babeserako Udal eta Lurralde mailako gizarte zerbitzuetan arrisku eta babesgabetasuneko egoeren larritasuna balioesteko tresna; Gizarte-bazterketako egoerak BARE eta mendekotasun-egoerak baloratzeko tresnak MBB).

Zuzendaritzarako gaitasuna prestakuntza espezifikoaren bidez, eta lan-esperientzia bidez frogatu beharko dira administrazio baldintza partikularren pleguan xedatutakoaren arabera.

- Intermediar entre la organización y la administración.
- Liderar y dirigir el equipo de trabajo.
- Impulsar los mecanismos de interacción y relación de los y las agentes sociales;
- Dominar la organización de la Ley de Servicios Sociales y demás normas de desarrollo de la misma y del Sistema Vasco de Servicios Sociales (reparto competencial) y conocer el sistema organizativo y los instrumentos de diagnóstico del área de actuación (BALORA, instrumento de valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo y desamparo en los servicios sociales municipales y territoriales de protección a la infancia y a la adolescencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco; instrumentos de valoración de situaciones de exclusión social BARE y de situaciones de dependencia BVD).

La competencia directiva se acreditará mediante formación específica y experiencia laboral de conformidad con lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

***Esku-hartzeko Programen eta Planen Koordinatzaileak,** bi *lanaldi osoan* eta bestea *lanaldi erdian*.

Besteak beste, esku-hartzeko programa bakoitzaren jarraipenaz, garapenaz eta ebaluazioaz arduratuko dira, eta baita ere artatutako pertsonen eta familien banakako arreta planez ere, plan horien plangintza, jarraipena eta ebaluazioa eginez. Horretarako, egoera bakoitzaren testuinguruaren eta babesgabezia/mendekotasun/bazterkeria egoeraren edo arrisku mailaren azterketa sakona egingo dute diagnostiko tresna espezifikoak oinarritzat hartuz.
Egoera horiei aurre egiteko edo arrisku-maila arintzeko helburuekin banakako arreta-plana proposatuko dute, esku-hartze zerbitzurako aurreikusitako prestazio desberdinez baliatuta, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman, edo

***Coordinadores o coordinadoras de Programas y Planes de Intervención,** dos personas *a jornada completa* y otra persona *a media jornada*.
Se encargarán del seguimiento, desarrollo y evaluación de cada uno de los programas de intervención, así como de los planes de atención individualizada de las personas y familias atendidas, realizando su planificación, seguimiento y evaluación. Para ello, realizarán un análisis exhaustivo del contexto de cada situación y del nivel de riesgo de desprotección/dependencia/exclusión basándose en las herramientas específicas de diagnóstico.
A su vez, con el fin de hacer frente a estas situaciones o de mitigar su nivel de riesgo, propondrán un plan de atención individualizado, aprovechando las diferentes prestaciones previstas en este servicio de

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

komunitatean dauden bestelako baliabide lagungarriak aktibatuta. Horretarako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako erreferentziazko gizarte langilearekin elkarlanean arituko dira, dokumentu honetako «2.3. Jarduteko-protokoloan» jasotako prozedurari jarraiki.

intervención, y activando otros recursos de apoyo del Sistema Vasco de Servicios Sociales o en la comunidad.
Para ello, actuarán en estrecha colaboración con el o la trabajadora social de referencia en los Servicios Sociales de Base, siguiendo el procedimiento detallado en el «2.3. Protocolo de Actuación» de este documento.

Era berean, esku-hartzeak garatzeko programen eta banakako arreta-planen ebaluazio partekatua sustatuko dute lan-taldean (kasuan-kasu, zuzendaria, terapeuta edo hezitzaileekin osatutako lan-taldean).

Asimismo, promoverán el seguimiento y la evaluación colaborativa de los programas del servicio de intervención, y de los planes individualizados de atención dentro del equipo de trabajo (es decir, con el/la directora, terapeuta y/o educadores/as, en su caso).

Zehatzago esanda, koordinatzaileak egin beharreko eginkizun espezifikoak ondokoak dira:

Más concretamente, las funciones específicas a desarrollar por las personas coordinadoras son las siguientes:

-Dauden eta sortzen ari diren fenomeno, gizarte errealitate eta arazo sozialak ezagutu eta ulertzea.
-Esku-hartzeko programak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea, eta, era horretan, babesgabeziako edo arriskuko egoerak gainditu eta gizarte-ongizatea sustatzeko lan egitea.
-Gizarte-baliabideak eta haien lege-esparrua esku-hartze profesionalerako oinarrizko tresna gisa ezagutzea.
-Erakunde publikoen, entitate sozialen eta enpresen antolamendua menperatzea, komunitate mailan koordinazioa eta lankidetza bideratzeko.
-Pertsonekin, familiarekin eta komunitatearekin batera lan egitea, babesgabezia-, mendekotasun-, haskortasun-, edo bazterkeria-arriskuko egoeren adierazleak ikertzeko, eta egoera horien larritasun maila ebaluatzeko.
-Arrisku maila arintzeko esku-hartzeko banakako plana adostea, eta hori garatzeko beharrezko baliabideak aktibatzea (zerbitzuak berak eskaintzen dituenak, edo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman edo komunitatean dauden bestelako baliabideak).

- Conocer y comprender los fenómenos, realidades sociales y problemas sociales existentes y emergentes.
- Diseñar, implantar y evaluar los programas de intervención para la superación de situaciones de desprotección o riesgo y la promoción del bienestar social.

- Reconocer los recursos sociales y su marco legal como instrumentos básicos de intervención profesional.
- Dominar la organización de las instituciones públicas, entidades sociales y empresas para facilitar la coordinación y cooperación a nivel comunitario.
- Trabajar conjuntamente con personas, familia y comunidad para investigar indicadores de situaciones de riesgo de desprotección, dependencia, fragilidad o exclusión y evaluar su gravedad.
- Elaborar el plan individual de intervención para mitigar el nivel de riesgo y la activación de recursos necesarios para el desarrollo del mismo (tanto los ofrecidos por el propio servicio como otros recursos existentes en el Sistema Vasco de Servicios Sociales o en la comunidad).

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

-Arrisku-egoerak prebenitu eta kudeatu, eta gatazka-egoerak bideratzea ahalbidetuko duen lan-harremana sortzeko lana egingo du.

-Gizarte-lanaren funtsak, metodologia, ereduak eta teknikak aplikatuko ditu, egoerak/arazoak aztertzeko eta gizarte-lanaren jardunbidea pertsona, familia, talde eta komunitateekin diagnostikatu, planifikatu, egin eta ebaluatzeko.

Esku-hartzeko Programen eta Planen Koordinatzaile izateko gaitasuna prestakuntza espezifikoaren eta lan-esperientzia bidez frogatu behar dira administrazio baldintza partikularren pleguan xedatutakoaren arabera.

***Terapeuta** lanaldi *osoan* lana egingo duena.

Besteak beste, honako zeregin hauek beteko ditu: arreta pertsonalizatuko planetan jasotako prozesu terapeutikoak garatuko ditu, «Beren kargura haurrak edo nerabeak dituzten familien aholkularitza-programa; guraso-gaitasunen edo heziketa-jarraibideei buruzko kezkak artatzeko informazio- eta orientazio-puntua» kudeatuko du beharrezko arreta eskainiz arreta eskatzen duten gurasoei, eta esku-hartzea garatzeko programen eta banakako arreta-planen ebaluazio partekatuan kolaboratuko du koordinatzailearekin lan-taldean, eta berari dagozkion gainerako zereginetan (gizarte eragileen formakuntza saioak, koordinazioak...).

Zehatzago esanda, terapeutak egin beharreko eginkizun espezifikoak ondokoak dira:

-Oinarrizko prozesu psikologikoak arautzen dituzten legeak eta printzipioak ulertzea, bai eta horien oinarri biologikoak, sozialak eta kulturalak ere, eta horiek bizi-zikloan zehar garatzeko laguntza eskaintzea, gizakiaren substratu psikologikoa osatzen duten elementuak identifikatu eta integratuz.

- Prevenir gestionar las situaciones de riesgo y trabajar para crear una relación laboral que permita canalizar las situaciones de conflicto.
- Aplicar los fundamentos, metodología, modelos y técnicas del trabajo social para analizar situaciones/problemas y para diagnosticar, planificar, realizar y evaluar la práctica del trabajo social con personas, familias, grupos y comunidades.

La competencia como coordinador o coordinadora de Programas y Planes de Intervención debe acreditarse mediante formación específica y experiencia laboral de conformidad con lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

***Terapeuta** que trabaje *a jornada completa*.

Entre otras funciones, desarrollará los procesos terapéuticos planificados en los planes de atención personalizada; gestionará el «Programa de asesoramiento a familias con niños, niñas o adolescentes a su cargo; el punto de información y orientación para la atención de las consultas relacionadas con las pautas educativas y capacidades parentales» prestando la atención necesaria a los padres y madres que demandan atención; y colaborará con el coordinador o la coordinadora en la evaluación compartida de los programas de desarrollo de la intervención y de los planes de atención individualizada, y en las demás intervenciones que se le requiera (formación de agentes de la comunidad, coordinaciones...).
En concreto, las funciones específicas a desarrollar por el o la terapeuta son las siguientes:
- Comprender las leyes y principios que rigen los procesos psicológicos básicos y sus bases biológicas, sociales y culturales y facilitar su desarrollo a lo largo del ciclo vital, identificando e integrando los elementos que conforman el sustrato psicológico humano.
- Conocer los ámbitos de aplicación de la psicología y desarrollar las intervenciones

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

-Psikologiaren aplikazio-eremuak ezagutzea eta gizabanakoen, taldeen, komunitateen eta erakundeen osasuna eta bizi-kalitatea eragiteko eta sustatzeko beharrezkoak diren esku-hartze terapeutikoak garatzea, behar den testuinguru guztietan: hezkuntzan, klinikoan, lanean eta erakundeetan eta komunitatean.
-Ebaluaziorako datu garrantzitsuak neurtzeko eta lortzeko gai izatea, datu kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak aztertu eta emaitzak interpretatzeko, eta txosten psikologikoak egitea, ahoz eta/edo idatziz aurkezteko.

-Hainbat testuingurutan banakoen, familien eta taldeen arteko desberdintasunak, arazoak eta beharrak identifikatzeko gai izatea, eta esku-hartzeak nola planifikatu eta ebaluatu jakitea.

-Terapiaren praktika profesionala arautzen duen lege-esparrua ezagutzea eta printzipio etikoak eta kode deontologikoa aplikatzeko gai izatea.

Terapeuta-gaitasuna prestakuntza espezifikoaren eta lan-esperientzia bidez frogatu behar da administrazio baldintza partikularren pleguan xedatutakoaren arabera.

terapéuticas necesarias para promover la salud y la calidad de vida de individuos, grupos, comunidades e instituciones en todos los contextos: educativo, clínico, laboral e institucional y comunitario.
- Ser capaz de medir y obtener datos relevantes para la evaluación, analizando datos cuantitativos y/o cualitativos e interpretando los resultados y elaborando informes psicológicos para su presentación oral y/o escrita.
- Ser capaz de identificar las diferencias, problemas y necesidades individuales, familiares y grupales en diferentes contextos, así como de planificar y evaluar las intervenciones.
- Conocer el marco legal que regula la práctica profesional de la terapia y ser capaz de aplicar los principios éticos y el código deontológico.

La capacidad terapéutica debe acreditarse mediante formación específica y experiencia laboral de conformidad con lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

***Hezitzaileak:** 7 hezitzaile lanaldi osoan lana egiteko.

Besteak beste, honako zeregin hauek beteko dituzte: arreta pertsonalizatuko planetan jasotako prozesu hezitzaileak garatu beharko dituzte, horretarako beharrezkoak diren banakako-, familiako-, edo taldeko ekintzak antolatuz, eta esku-hartze zerbitzua garatzeko programen eta banakako arreta planen ebaluazio partekatuan kolaboratuko dute koordinatzailearekin lan-taldean.

Zehatzago esanda, hezitzaileei dagozkien zeregin espezifikoak ondokoak dira:

- Babesgabezia/Mendekotasuna/Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsona, familia edo taldeetan hautemandako premiei

***Educadores y educadoras:** 7 educadores/as a jornada completa.

Entre otras tareas, deberán desarrollar los procesos educativos acordados en los planes de atención personalizada, desarrollando para ello las actividades grupales, familiares y/o grupales que sean necesarias; y colaborarán con el/la coordinador/a en la evaluación compartida de los programas de desarrollo del servicio de intervención y de los planes individuales de atención.

En concreto, las tareas específicas que corresponden al personal educador son las siguientes:
- Colaborar en el diseño de programas socioeducativos, proyectos y planes educativos que respondan a las necesidades

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

erantzuteko gizarte-hezkuntzako programak, proiektuak eta planak diseinatzen laguntzea, eta diseinatutako esku-hartze programak edo banakako arreta-planak garatzea.

- Esku-hartze programen eta banakako arreta-planen ebaluazio partekatuan ekarpena egitea.
-Babesgabezia/Mendekotasuna/Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonekin diharduten komunitateko eragileen (talde, profesional...) laguntza eta trebakuntzako premiei arreta berezia eskaintzea.

- Familietan, taldeetan, baliabideetan, edo zerbitzuetan hautemandako arazoak eta zailtasunak konpontzeko estrategia eta teknika egokienak sortzea eta horien erabilera sustatzea.
- Hezkuntza-harremanak eta sare sozialak ezartzeko bide ematen duten testuinguruak sortzen laguntzea, garapen pertsonala, taldekoa eta komunitatekoa sustatzeko.

- Gizarte-errealitatean eta gizarte-hezkuntzako esku-hartzeen eremuetan azterketak eta ebaluazioak egiterakoan eta behar berriak hautematerakoan bere ekarpena egitea lan-taldean.
- Gizarte-hezkuntzako esku-hartzea garatzea, lanbidearen deontologiaren gako etikoetatik eta errespetutik, oinarri teorikoen ezagutzatik, eta jarduera profesionalaren sostengatzen duten legedia eta politiketatik (gizarte-politikak, hezkuntza-politikak, eta kultura-politikak).

Hezitzaile izateko gaitasuna prestakuntza espezifikoaren eta lan-esperientzia bidez frogatu beharko da administrazio baldintza partikularren pleguan xedatutakoaren arabera.

C) Informatikako eta teknologiako beharrezko baliabideak: Beharrezko medio informatiko eta teknologikoak bermatuko dira, informazioa behar bezala sistematizatzeko, eta datu

detectadas en personas, familias o grupos en situación o riesgo de desprotección/dependencia/exclusión y desarrollar programas de intervención distintos o planes de atención individualizados.
- Contribuir a la evaluación compartida de los programas de intervención y de los planes individuales de atención.
- Prestar especial atención a las necesidades de apoyo y formación de los distintos agentes de la comunidad (colectivos, profesionales, …) que trabajan con personas en situación o riesgo de desprotección, dependencia y/o exclusión.
- Crear las estrategias y técnicas más adecuadas para resolver los problemas y dificultades detectadas en las familias, grupos, recursos, servicios, etc. y promover su uso.
- Contribuir a la creación de contextos que posibiliten el establecimiento de relaciones educativas y redes sociales, con el fin de promover el desarrollo personal, grupal y comunitario.
- Colaborar con el equipo de trabajo a la hora de realizar estudios, evaluaciones y detectar nuevas necesidades en la realidad social y en los ámbitos de intervención socioeducativa.

- Desarrollar la intervención socioeducativa desde las claves éticas y del respeto a la deontología de la profesión, desde el conocimiento de los fundamentos teóricos y desde la legislación y políticas que sustentan la actividad profesional (políticas sociales, educativas y culturales).

La capacitación para ser educador o educadora deberá acreditarse mediante formación específica y experiencia laboral de conformidad con lo dispuesto en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

C) Medios informáticos y tecnológicos necesarios: Se garantizarán los medios informáticos y tecnológicos necesarios para la adecuada sistematización de la información y

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

pertsonalak babesteko beharrezko neurriak hartzeko. Era berean, zerbitzua eskaintzerakoan komunikazio-bideak egungo teknologia berrietara egokituta eskaintzea bermatu beharko da.

la adopción de las medidas necesarias para la protección de los datos de carácter personal. Así mismo, se deberá garantizar que en la prestación del servicio se ofrezcan canales de comunicación adaptados a las nuevas tecnologías existentes.

D) Garatuko diren esku-hartze programak:

D) Los programas de intervención que se implementarán:

1- Esku-hartzearen komunitate-sarea osatzen duten gizarte-eragileei zuzendutako formaziorako, sentsibilizaziorako eta prebentziorako programa.

1- Programa de formación, sensibilización y prevención dirigido a agentes sociales que conforman el tejido comunitario de intervención.

2- Beren kargura haurrak edo nerabeak dituzten familien aholkularitza-programa; guraso-gaitasunen edo heziketa-jarraibideei buruzko kezkak artatzeko informazio- eta orientazio-puntua.

2- Programa de asesoramiento a familias con niños, niñas o adolescentes a su cargo; punto de información y orientación para atender inquietudes sobre capacidades parentales o pautas educativas.

3.-Haur eta nerabeen talde izaerako esku-hartzea komunitatean programa; batik bat, gizarteratzeko zailtasunak dituzten, edo arrisku-adierazleak dituzten haur eta nerabeei zerbitzua ematen diena.

3.-Programa de intervención comunitaria grupal para niños, niñas y adolescentes que presta servicio a niños, niñas y adolescentes con dificultades de inserción social o con indicadores de riesgo.

4.-Heldu-aroan dauden pertsonekin talde izaerako esku-hartzea komunitatean programa; batik bat, zaurgarritasun egoeran dauden gurasoei edo gizarteratze-arloan zailtasunak dituztenei zerbitzu ematen diena.

4.-Programa de intervención comunitaria de carácter grupal con personas adultas, que presta servicios a padres/madres y otras personas adultas en situación de vulnerabilidad o con dificultades de inserción social.

5.-Adineko pertsonekin talde izaerako esku-hartzea komunitatean programa; batik bat, hauskortasun egoeran dauden, eta gizarteratze arloan zailtasunak dituzten eta nahi gabeko bakardade egoeran dauden pertsonei zerbitzu ematen diena.

5.-Programa de intervención comunitaria de carácter grupal con personas mayores, que da servicio a personas en situación de fragilidad y con dificultades de integración social y en situación de soledad no deseada.

6.- Haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoerak atzemateko, baloratzeko eta jarraipena egiteko programa.

6.- Programa de detección, valoración y seguimiento de situaciones de desprotección infantil y adolescente.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

7.-Babesgabetasuneko arrisku-egoera arin edo ertainean dauden adingabeekin eta beren familiekin esku-hartzeko programa.

7.-Programa de intervención con menores en situación de riesgo de desprotección leve o moderado y sus familias.

8.-Alojamendu alternatiboko baliabideetan bizi direnekin esku-hartzeko programa, izan bazterkeria-egoeran edo arriskuan egoteagatik, larrialdi-egoerei erantzuteko neurri moduan, edo mendekotasun-arriskuko egoeran egoteagatik.

8.-Programa de intervención con personas acogidas en recursos municipales de alojamiento alternativo, ya sea por encontrarse en situación o riesgo de exclusión, como medida de respuesta a situaciones de emergencia, o en situación de riesgo de dependencia.

9.- Hauskortasun eta bakardade egoeran dauden pertsonekin esku-hartzeko programa.

9.- Programa de intervención con personas en situación de fragilidad y soledad.

(Oharra: ZERBITZUAREN ESKAINTZAREKIN AURKEZTEN DIREN MEMORIEK ZEHATZ-MEHATZ JASO BEHARKO DUTE PROGRAMA HAUETAKO BAKOITZAREN DESKRIBAPENA, NOLA GARATUKO DEN; argituz izango duen diseinu teorikoa, flujograma eta kudeatzeko erabiliko diren prozedurak, baliabide pertsonalak eta espazioa,…)

(Nota: LAS MEMORIAS QUE CONTENGAN LA PROPUESTAS PARA LA PRESTACIÓN DE ESTE SERVICIO DEBERAN DEFINIR DETALLADAMENTE UNA PROPUESTA ESPECÍFICA SOBRE EL DESARROLLO DE CADA UNO DE LOS PROGRAMAS QUE SE HAN SEÑALADO EN EL APARTADO ANTERIOR, incluyendo el diseño teórico, el flujograma y procedimiento concreto, recursos personales, la gestión del espacio,…).

4. EGINKIZUNAK:

A) Entitate adjudikaziodunaren funtzioak

a) Lan-egitasmoa gauzatzea, onartutako baldintza tekniko eta ekonomikoen arabera.

b) Zerbitzua egoki emateko beharrezko diren bitarteko materialak, teknologikoak eta pertsonalak jartzea; eta lantaldean funtzio eta arduren banaketa argia egitea.

c) Errespetatu eta betetzea baldintza-plegu honetan zehaztutako jarduera-protokoloa eta ohiko koordinazioen maiztasuna.

4.FUNCIONES:

A) Funciones de la entidad adjudicataria

a. Desarrollar el proyecto según las condiciones técnicas y económicas aprobadas.

b. Disponer de los medios materiales, tecnológicos y personales necesarios para ofrecer adecuadamente el servicio; definiendo claramente las funciones y responsabilidades de cada miembro del equipo.

c. Respetar y cumplir el protocolo de actuación y la frecuencia de las coordinaciones ordinarias definidas en estos pliegos.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

d) Pertsona edo familiaren aurkezpena egin ondoren, gehienez 15 eguneko epean dagokion esku-hartzeari ekitea

e) Arreta Pertsonalizatuko Planen eta Arretako Programen jarraipen sistematikoa egitea, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko erreferentziazko gizarte langilearekin partekatzea.

f) Kasuaren arduraduna berehala jakinaren gainean jartzea, esku-hartzean aldaketa garrantzitsuren bat gertatzen bada (profesionalen bajak, bizikidetza-unitatean aldaketak, saioetara ez azaltzea...).

g) Ahaleginak egitea pertsona edo familiaren arretarako esleitutako profesional bera mantentzeko lan-prozesua hasten denetik amaitu arte. Salbuespenez, eta egoerak hala eskatzen badu, egin ahal izango dira profesional aldaketak ere. Profesionalak baja hartzen badu, berehala ordezkatuko du entitate adjudikaziodunak prestakuntza egokia duen beste profesional batekin.

h) Zerbitzua ebaluatzeko, koordinatzea eta jarraipena egitea Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailarekin. Gutxienez honako bilera hauek egingo dira:

- Urtean behin, zerbitzuaren Zuzendaritzaren eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren arduradunen arteko jarraipen eta ebaluazio bilera.

- Hiru hilean behin, koordinazio-bilera Eskuhartze zerbitzuko gizarte langileen eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko erreferentziazko gizarte langilearen artean, zerbitzua osatzen duten programen eta programa horien bidez garatzen ari diren Arreta Pertsonalizatuko Planen jarraipena egiteko.

d. Iniciar las intervenciones en un plazo máximo de 15 días, tras realizar la presentación de la persona o familia.

e. Realizar el seguimiento sistematizado de todos los Planes de Atención Personalizado, y Programas de Atención, y compartir con el o la trabajadora social de referencia del Área de Servicios Sociales y Salud.

f. Comunicar inmediatamente a la persona responsable del caso cualquier cambio importante que pudiera acontecer durante el proceso de intervención (bajas de los/las profesionales, cambios en las unidades convivenciales, faltas de asistencia a las sesiones…).

g. Procurar que sea el/la mismo/a profesional de la entidad adjudicataria quien atienda en todo momento a la persona o la familia, hasta que finalice la intervención. Excepcionalmente y cuando las circunstancias así lo aconsejen, se podrán realizar cambios de profesionales En caso de baja de los/las profesionales que atiendan a la familia, los/las sustitutos/as tendrán una formación técnica equivalente.

h. Encargarse de la coordinación y seguimiento con el Área de Servicios Sociales y Salud, para la evaluación del servicio. Como mínimo se celebrarán las siguientes reuniones:

- Una vez al año una reunión de seguimiento y evaluación entre la Dirección del Servicio y las responsables del Área de Servicios Sociales y Salud.
- Trimestralmente, una reunión de coordinación entre la/s trabajadoras sociales del Servicio de Intervención y la/las trabajadoras sociales de referencia del Área de Servicios Sociales y Salud para el seguimiento de los programas que componen el servicio y de los Planes de Atención Personalizada que se están desarrollando a través de los mismos.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

i) Kasuaren ardura edo eskumena aldatzen denean (larritasun maila dela eta, edo baliabide espezializatu batean sartu edo handik irten delako), Aldundiaren eta Udalaren artean egin beharreko koordinazio-bileretan parte hartzea (beti ere Udaleko erreferentziazko gizarte langileak egoki baloratzen badu).

j) Zerbitzua euskaraz eskaintzea, bereziki haurrei eta nerabeei.

k) Urtean behin esku-hartze zerbitzuaren memoria aurkeztea Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailari.

l) Tolosako Udalean indarrean dauden euskara irizpideak eta berdintasun irizpideak onartzea, eta horiek errespetatuz ematea zerbitzua.

B) Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren eginkizunak

Erreferentziazko gizarte langileak eginkizun hauek izango ditu:

-Egoera baloratzea, eta aztertzea ea gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua egokia ote den.

- Onuradunak motibatzea, zerbitzu hau onartu eta kolaboratu dezaten, horretarako beharrezkoak diren izapideak eginez (parte-hartzeko agiria, ebazpen administratiboa, esku-hartze zerbitzuari informazioa ematea eta aurkezpeneko hitzordua adostea...).

- Esku-hartze zerbitzuak egindako ebaluazio txostenaren eta proposatutako Arreta Pertsonalizatuko Planak onartzea, jarraipena egitea, ebaluatzea, eta egin beharreko aldaketak proposatu.

- Hiru hilean behin, programen eta esku-hartzeko arreta pertsonalizatuko planen jarraipen-bileretan parte hartzea.

i. En caso de que cambie la responsabilidad o la competencia del caso (por el nivel de gravedad o por acceder a un recurso especializado o haber salido de dicho recurso), participar en las reuniones de coordinación necesarias entre la Diputación y el Ayuntamiento (siempre y cuando el o la trabajadora social de referencia lo valore como conveniente).

j. Ofrecer el servicio en euskera, sobre todo a niños/as y adolescentes.

k. Presentar, anualmente, una memoria del servicio de intervención al Área de Servicios Sociales y Salud.

l. Asumir los criterios lingüísticos y de igualdad vigentes en el Ayuntamiento, y dar el servicio respetándolos.

B) Funciones del Área de Servicios Sociales y Salud

El/la trabajador/a social de referencia tendrá las siguientes funciones:

- Valorar la situación y analizar la conveniencia de activar el Servicio de intervención psicoeducativa y psicosocial.

- Motivar a las personas beneficiarias para que acepten y colaboren con el proceso de intervención, realizando todas las gestiones para activarlo (compromiso de participación, resolución administrativa, informar sobre el servicio de intervención, concertación de la primera cita para presentación de la intervención...).

- Aprobar el informe de evaluación elaborado por el Servicio de Intervención y los Planes de Atención Personalizada propuestos, realizar el seguimiento, evaluar y proponer los cambios necesarios.

- Trimestralmente, participar en las reuniones de seguimiento de los programas y de los planes de atención personalizada de intervención.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO UDALA

- Esku-hartze zerbitzuaren komunitate-sarea indartzeko eta gizarte-eragileen arteko elkarlana sustatzeko lanketan kolaboratzea.

- Familiaren arrisku-egoera larrira edo babesgabetasunera pasatzen bada, ikerketa-txosten berria Haur eta Nerabe gaietarako Eskualdeko Taldera bideratzea (HNET), haiek esku-har dezaten. Era berean, pertsona baten bazterkeria egoerak edo mendekotasun egoerak okerrera egiten badu, eta zerbitzu espezializatuen beharra duela ondorioztatzen bada, dagokion zerbitzu espezializatura bideratuko dira informazioa eta beharrezko eskaerak.

- Colaborar en el trabajo para fortalecer el tejido comunitario del servicio de intervención y fomentar la colaboración entre los y las agentes sociales.

-En caso de que la situación de riesgo de una familia pase a ser grave o de desprotección, derivar el nuevo informe de investigación al Equipo Zonal de Infancia y Adolescencia (EZIA), para su intervención. Asimismo, cuando la situación de exclusión o dependencia de una persona empeore y se concluya la necesidad de servicios especializados, se trasladará la información y solicitudes necesarias al servicio especializado correspondiente.

Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko arduraduna izango da zerbitzu-kontratu honen arduraduna, eta berarekin egingo da zerbitzu honen jarraipena eta ebaluazioa, hobekuntzak proposatzeko eta bere eginkizuna behar bezala betetzen duela ziurtatzeko.

La/El responsable del Área de Servicios Sociales y Salud será la responsable de este contrato de servicio, y por tanto, se encargará de realizar el seguimiento y la evaluación del servicio, para proponer mejoras, y/o comprobar que cumple con su función.

5. ORDUTEGIA ETA LAN-EGUTEGIA:

Esku-hartze zerbitzuaren arreta goizez eta arratsaldez emango dute, ordutegi malguarekin, beti ere onuradunaren ezaugarrien eta esku-hartzearen helburuen arabera.

Dena den, ohiko ordutegia izango da astelehenetik ostiralera, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00etara, eta Tolosako Udalaren lan-egutegia errespetatuz jaiegunei dagokienez.

Haurren eta nerabeen interes gorena aintzat hartuta, beraiek parte hartu behar duten saioak programatzerakoan, ahalegin berezia egingo da, eta ahal dela, eskola-ordurik eta eskolaz-kanpoko jarduerarik ez dute galduko.

Gauzatu nahi den jardueraren eragina eta parte-hartzea maximizatzeko ohiko ordutegiz kanpo programatu ahal izango dira zenbait jarduera, beti ere behar bereziei erantzuna emateko denean.

5. HORARIO Y CALENDARIO DE TRABAJO:

La atención del servicio de intervención se realizará en horario de mañana y tarde, con horario flexible, en función de las características del beneficiario y de los objetivos de la intervención.

No obstante, el horario habitual será de lunes a viernes, desde las 8:00 horas de la mañana hasta las 20:00 horas de la tarde, y respetando el calendario laboral del Ayuntamiento de Tolosa en lo referente a festivos

Teniendo en cuenta el interés superior de los niños, niñas y adolescentes, las sesiones en las que han de participar se programarán de manera que se evite, en la medida de lo posible, la pérdida de horas lectivas y de actividades extraescolares.

Se podrán programar actividades fuera del horario habitual para maximizar el efecto y la participación de la actividad que se pretende realizar, siempre que se trate de dar respuesta a necesidades especiales.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO UDALA

6. SEXU-DELITUEN BERARIAZKO ZIGOR AURREKARIEN ZIURTAGIRIA:

Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa betetzeko —lege hori Haurrak Babesteko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatu zuten—, beren eginkizunak betetzean adingabeekin harremanetan dauden zerbitzuko langile guztien sexu-delituei buruzko zigor-aurrekari espezifikoen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

7. ZERBITZUAREN EBALUAZIO, JUSTIFIKAZIO ETA KONTROL SISTEMAK.

Hiru hilean behin, arreta programen eta Arreta Pertsonalizatuko Planen koordinatzaileak elkartuko dira erreferentziazko gizarte langilearekin, eta esku-hartzeko planaren jarraipena eta eraginkortasunaren inguruko ebaluazioa egingo dute.

Sei hilean behin, zerbitzuaren zuzendariak beharrezko dokumentazioa aurkeztuko dio Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko arduradunari, hau da, kontratuaren arduradunari, kontratuaren exekuzioaren inguruko jarraipena egiteko.

Urtean behin, zerbitzu-emaileak memoria aurkeztuko du Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailean, eta Zerbitzuaren ebaluazio-bilera egingo da, arlo hauek ebaluatzeko:

- Kontratuaren garapenaren analisia eta hobetzeko proposamenak.
- Zerbitzuaren eta zerbitzuko arreta-programa bakoitzaren eraginkortasunaren analisia eta hobetzeko proposamenak.
-Zerbitzuaren eta zerbitzuko arreta-programa bakoitzaren metodologiaren eta antolakuntzaren analisia eta hobetzeko proposamenak.

6. CERTIFICADO DE ANTECEDENTES PENALES DE DELITOS SEXUALES

En cumplimiento de la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, modificada por la Ley 26/2015 de 28 de julio de Protección de la Infancia y por la Ley 45/2015, de 14 de octubre, de Voluntariado, se presentarán certificados de antecedentes penales específico sobre delitos sexuales de todas las personas trabajadoras del servicio que en el desempeño de sus funciones, trabajen en contacto con las personas menores de edad.

7. SISTEMAS DE EVALUACIÓN, JUSTIFICACIÓN Y CONTROL DEL SERVICIO.

Trimestralmente, los/las coordinadoras de los programas de atención y de los Planes de Atención Personalizada se reunirán con el o la trabajadora social de referencia y realizarán el seguimiento y evaluación de la eficacia del Plan de Intervención.

Semestralmente, la Dirección del Servicio presentará a la responsable del Área de Servicios Sociales y Salud, responsable del contrato, la documentación necesaria para el seguimiento de la ejecución del contrato.

Anualmente, la empresa prestadora del servicio presentará la memoria en el Área de Servicios Sociales y Salud, y se realizará una reunión de evaluación del servicio, en concreto, de los siguientes aspectos:
- Análisis del desarrollo del contrato y propuestas de mejora.
- Análisis del servicio y de la eficacia de cada uno de los programas de atención que lo componen y propuestas de mejora.
- Análisis y propuestas de mejora del servicio y de la metodología y organización de cada uno de los programas de atención que lo componen.

ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

TOLOSAKO
UDALA

Nork Sinatua / Firmado por: AINARA IRAZUSTA ZUBELDIA - 44167541C
2026/09/30 13:00:34

EKS | CSV: ESKU9430316e-824f-4c1e-9b1b-78ae5385d58a

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: ***https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110***
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: ***https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110***